

ZERGATIK EDUKI UDAZKEN-NEGUKO BARATZEA

Normalean udaberrian eguraldi ona hasten denean, gure baratzea lantzeko gogoa pizten zaigu barazkiak, landare usaintsuak etab. landatuz. Eguraldi ona izateaz gain, landatzeko aukera anitzak gure baratzezain-sena pizten du. Udazkena etorri ahala ordea, gogo hau moteltzen joaten da eta udako laboreak kentzen ditugun heinean, gure baratzea gero eta hutsago eta tristeago dago.

Baina, zergatik ez dugu izango barazkiz betetako baratzea udazken-neguan? Arrazoi ugari daude horretarako eta hauetako batzuk azalduko dizkizuegu hemen:

1. Neguko baratzeak zaintza-lan gutxiago behar du: hotza izango da gure aliatua. Alde batetik, hotzak belar txarrak hastea ekiditen du; hori dela eta, ez dugu belarrik kendu beharko. Beste alde batetik, hotzak izurriteak eta gaixotasunak ekiditen ditu onddoak eta intsektuak ez baitira hain erraz ugaltzen.

2. Uste duguna baino barazki gehiago landatu daitezke: udaberri-udan barazki ugari landatu daitezkeen arren, udazken-neguko baratzean ere barazki desberdinak izan ditzakegu: porruak, azaloreak, azak, eskarolak edo osterzuriak, ilarrak, babak, kanonigoak, rukula, ziazerbak, arbiak eta baita pak choi, mizuna eta kalea bezalako barazki exotikoak ere.

3. Gure baratzea askoz politagoa eta babestuagoa egongo da: baratzeak gure lorategia politagoa egiten lagunduko digu. Hori dela eta, zaintzen badugu, eskertuko digu. Gainera, lurra laborez beteta izateak, hutsik izan beharrean, azpian dagoen fauna babestuko du eta ondorioz, datorren udaberrian baratze osasuntsuagoa izango dugu.

4. Udaberrian lurra lantzea errazagoa egingo zaigu: gure baratzeko lurra ez badugu negu osoan lantzen eta babestu gabe uzten badugu, udaberrian lurra oso gogorra egongo da eta askoz gehiago landu beharko dugu bertan landatu ahal izateko. Landatuta izan badugu ordea, lurra bigunagoa egongo da laboreen sustraiei esker.

Hori bai, hau guztia lortzeko berehala lanean hasiko gara eguraldi txarra hasi baino lehen udazken-neguko barazkiak landatuz. Aurrera!

¿POR QUÉ TENER UNA HUERTA DE OTOÑO-INVIERNO?

Habitualmente, en primavera, cuando empieza el buen tiempo, es cuando a todos nos entran ganas de empezar a trabajar en nuestra huerta plantando hortalizas, plantas aromáticas etc. Además del buen tiempo, hay gran variedad de hortalizas que podemos cultivar y eso hace despertar nuestro instinto hortelano. Pero a medida que viene el otoño, estas ganas se suelen ir perdiendo y según vamos quitando los cultivos de verano, nuestra huerta está cada vez más vacía y triste.

Pero, ¿Por qué no tener una huerta llena de hortalizas sabrosas también en otoño-invierno? Hay muchas razones para ello y aquí os vamos a exponer algunas:

1.- El frío va a ser nuestro aliado. Por una parte, el frío hace que crezcan menos hierbas adventicias, por lo que no tendremos la necesidad de desherbar. Por otra parte, también ayuda a que prácticamente no haya plagas ni enfermedades en nuestra huerta, ya que con el frío tanto los hongos como los insectos no se reproducen tan fácilmente.

2.- Se pueden cultivar gran variedad de hortalizas: también en la huerta de otoño-invierno podremos tener una cantidad considerable de hortalizas diferentes... Puerros, coliflores, berzas, escarolas, guisantes, habas, canónigos, rúcula, espinacas, nabos y también hortalizas exóticas como el pak choi, la mizuna, el kale...

3.- La huerta también ayuda a que nuestro jardín este más bonito y es por ello que si la cuidamos, lo agradeceremos. Además, al tener la tierra llena de cultivos, en vez de tenerla desnuda, ayudará a proteger la fauna que se protege debajo de ella por lo que la primavera siguiente tendremos una huerta más saludable.

4.- Si no tocamos la tierra de nuestra huerta en todo el invierno y la tenemos desprotegida, en primavera la tierra estará muy dura y tendremos que trabajarla mucho más para poder cultivar en ella. Si la hemos tenido cultivada, la tierra estará mucho más mullida, ya que las raíces de los cultivos habrán ayudado a ello.

Eso sí, para conseguirlo, tenemos que ponernos en marcha ya y empezar a plantar las hortalizas de otoño-invierno antes de que empiece el mal tiempo. ¡En marcha!